

DOMUSA TEKNIK 40 MLK



Maiatzak 4
Azpeitia

65 Km • +3.700 m

Ikuslearentzako gida

www.domusateknik40mlk.com

Lagun Onak Mendi Bazkunak (LAGUN ONAK MB) **DOMUSA TEKNIK 40 MLK MENDI LASTERKETA**ren hirugarren edizioa antolatu du. Berau Azpeitia eta inguruko herrietan (Errezil, Beizama eta Bidania-Goiatz) igaroko den 65 Km-ko mendi lasterketa izango da, 550 partehartzaile izango dituelarik.

Honako dokumentu honetan ikuslearentzako ezinbestekoa den informazioa ageri da: egitaraua eta lasterketa ikusteko gune interesgarrienak.

Lasterketa maiatzaren 4an ospatuko da. Kirol-proba, Azpeitian hasi eta amaituko da, eta, bitartean, eskualdeko honako herri eta mendi tontorretatik igaroko da:

- Herriak: Azpeitia, Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizama.
- Mendiak (metroak): Arroita edo Arauntza (612), Sañu (616), Gazume (1002), Hernio (1078), Murumendi (868), Izazpi (973), Hiruarrieta edo Samiño (933) eta Xoxote (912).

Herri eta mendi hauez gain, inguruko leku esanguratsuenak ere, ahal den neurrian, jendeari erakustea izango litzateke lasterketaren nahia, hala nola, Azpeitiko tren museoa, Zelatungo bordak, Gipuzkoaren erdigunea, Beizama, Munoaundi, Burdin aroko herria, Loiolako basilika eta bere inguruak, Izarraitzeko atea, Xoxoteko aterpea, Elurtegia, Magdalenako ermita...

1. EGITARAUA

Maiatzak 3, Ostirala.

Dorsal banaketa

- Ordua: 17:00etatik 20:00etara
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian (Berdura plaza)

Maiatzak 4, Larunbata.

Dorsal banaketa

- Ordua: 06:00etatik 7:30etara
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian (Berdura plaza)

Lasterketa irteera

- Ordua: 8:00
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian

Lasterketa itxiera

- Ordua: 20:30
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian

Lasterketaren amaieran **parte hartzaile guztientzat paella eskainiko da** Azpeitiko Plaza Nagusian LAGUN ONAK MB-ren eskutik.

Gune bereziak

Anoa gune urdina (IKASBERRI)

- Egun osoan zehar ekitaldiak.

Taupada urdina gunea (Xoxoteko albergea)

- Paella jana.
- Taupada Urdina kamisetak banatuko dira. **Animatu mendiak urdinez margotzera eta etorri denok urdinez.**

APIRILAK 26

19:00 Bolondres eguna: Aurkezpena, luntxa eta kamiseta banaketa

MAIATZAK 3

10:30 Carmen Belmarren hitzaldia Soreasu Antzokian LH ikasleei

15:15 Carmen Belmarren hitzaldia Baztartxon LH ikasleei

17:00 – 20:00 Dortsal banaketa Azoka plazan

MAIATZAK 4

6:00 – 7:30 Dortsal banaketa Azoka plazan

7:30 Korralitoa

7:45 Korrikalari esanguratsuen aurkezpena

8:00 Domusa Teknik 40 MLK irteera

8:30 Domusa Teknik 15 MLK irteera

9:30 Trail martxa urdinaren irteera

10:35 Domusa Teknik 15 MLK lehen korrikalaria helmugan

13:45 Domusa Teknik 40 MLK lehen korrikalaria helmugan

17:00 21:00 Oihan Vega plazan

20:30 Elektrotzaranga (antolatzailea AZTE)

20:30 Domusa Teknik 40 MLK azken korrikalariari ongi etorria

21:00 Sari banaketa plazan


23:00 Sanagustiñen Anestesiaren kontzertua (antolatzailea Kulturaz)

Gune Urdinean

- 9:30** Domusa Teknik 15 MLK lehen korrikalariari ongi etorria
- 11:00** Trail martxa urdinaren iritsiera eta inklusioaren aldarrikapena
- 11:00 13:00** Sentsibilizazio jolasak
- 11:00 18:00** Atracciones Sanzen puzgarriak
- 12:30** Domusa Teknik 40 MLK lehen korrikalariari ongi etorria
- 12:00 16:00** Eusko Labelen eskutik pintxo eta edariak
- 17:45** Domusa Teknik 40 MLK azken korrikalariari ongi etorria

2. LASTERKETA NON IKUSI

Lasterketaren ibilbideak hainbat aukera ematen ditu lasterketa ikusteko. Ondorengo grafikan ikusten dira puntu esanguratsuenak.




Ondoren, autoz zein oinez joan daitekeen hainbat puntu interesgarrienak aipatzen dira, korrikalariak gutxi gorabeherako pasako diren ordua adieraziz.

	Puntu KM	Aurrena	Azkena
AZPEITIA	0	08:00	08:00
Arroita tontorra	3,2	08:16	08:38
Sañu tontorra	4,5	08:23	08:54
Etumeta	7,1	08:37	09:25
Komuzulotza Anoa gunea	8,7	08:46	09:44
Gazume tontorra	11	08:58	10:12
Zelatun	12,4	09:06	10:28
Hernio tontorra	14	09:15	10:48
Trintxera Anoa gunea	19	09:42	11:48
Maramendi lepoa Anoa gunea	27	10:29	13:31
Murumendi tontorra	29,5	10:39	13:54
Mandubi Anoa gunea	33,9	11:03	14:46
Izazpi tontorra	38,6	11:29	15:43
Pagotxeta Anoa gunea	41,6	11:45	16:19
Samiño tontorra	43	11:53	16:36
Larrume txiki Anoa gunea	48,3	12:22	17:39
Ikasberri Anoa gunea	53,8	12:52	18:45
Langa Anoa gunea	56,8	13:08	19:21
Xoxote tontorra	58,3	13:16	19:39
Xoxote Anoa gunea	59,7	13:24	19:56
AZPEITIA	65	13:53	21:00

AUTOZ

TRINTXERAKO ANOA POSTUA




19. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 9:30 aldera pasako da eta azkena 12:00 aldera.

Anoa postutik 300 metrotara, aparkaleku bat dago. Autoak han utzi eta oinez joateko aukera dago anoa gunera.




<https://goo.gl/maps/kmZrc6GxS7SxQvGj7>

MANDUBIAKO ANOA POSTUA




33,9. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 11:00 aldera pasako da eta azkena 15:00 aldera.

Mandubiko Bentan (Jatetxea) autoa aparkatzea egongo da, aparkalekuan bertan egongo da anoa postua.




<https://goo.gl/maps/qUXcgF5PY9o2rQBt8>

IZARRAITZEKO ATEA



53,8. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 12:30 aldera pasako da eta azkena 19:00 aldera.


Hemen autokarabanan aparkalekua egongo da kokatua. Autoentzako aparkaleku mugatua izango da, ez da komeni autoz bertaraino gerturatzea. Anoa gunee egokia duzue umekin etortzeko. Bertan, Anoa-gune URDINA denez, puzgarriak, jolasak, musika, jatekoa, eta abar egongo bait da.



<https://goo.gl/maps/U35btsFWQAa4V5o28>


OINEZ

KOMIZULOTZAKO ANOA POSTUA




8,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 8:40 aldera pasako da eta azkena 9:45 aldera.

Kotxez Etumeta auzora joan behar da eta errepide ertzean autoa kontuz aparkatu ondoren, oinez 2 Km-tara aurkitzen da anoa postua. Esan beharra daukagu, errepidea oso hestua dela eta 2 kotxe justu kabitzen direla errepidean, beraz, kontuz ibili. Trafiko asko ibil daiteke egun horretan.




<https://goo.gl/maps/eKKRVMvtoyypwTpw8>

ZELATUNGO BORDAK




12. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 9:00 aldera pasako da eta azkena 10:00 aldera.

Autoa Errezil-zein Iturriotzen utzi eta 1h30min inguruan igo daiteke Zelatunera. Bertan, zerbait jan edo edateko, Zelatungo Bordak dituzue. Ibilbidean Gazume edota Herniora igotzeko aukera ematen du.



XOXOTE




59,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 13:15 aldera pasako da eta azkena 20:00 aldera.

Azpeitin edo Attolan autoa utzi eta 1h30 inguruan Xoxotera igo daiteke. Bertan Xoxoteko Aterpetxea daukazue zerbait jan edo edan nahi izanez gero.

Bertan **TAUPADA URDINA** gunea egongo da eta **Paella eskainiko** da 3€tan. Gune honetan **kamiseta urdinak emango dira** DOMUSA TEKNIK LANA taldearen TAUPADA URDINA mugimenduarekin bat eginaz.

Ea denon artean mendiak urdintzea lortzen dugun!!!



DOMUSA
T E K N I K

MENDI LASTERKETA



domusateknik40mlk



@domusateknik40mlk



Domusa Teknik 40 MLK Mendi Lasterketa



@DomusaT40mlk



info@domusateknik40mlk.com

DOMUSA
T E K N I K

www.domusateknik40mlk.com